


balkei

Egunkaria
aurrera!

DENAK POZIK!?

- Hauteskundeetako emaitzak
- Alderdien iritzia





baleike

B

adatorrela, badatorrela!! Euskarazko egunkari berria datorren hilaren bukaerarako kalean izango da!! *Ze berri? Berria berri !!* Albiteen txokoa alaitzeko moduko notizia.

Imanol Azkuerekin gai horri buruz ere aritu gintezkeen *jardunian*, baina haur literaturako sari garrantzitsuenetakoa den **Lizardi Sariaren** irabazlea izanda, literaturaz aritu gara. Eta gustura asko, gainera. **Udal eta Foru hauteskunderen ur haunditan** sartu gara: Zumaiaiko emaitzak, alderdien iritziak, bestelako azterketa... Eta hauteskundeak egiten diren bakoitzean politiko

inbiditan izaten gara, denak gustura eta pozik egoten dira eta. Oraingoa ez da salbuespena. Zergatik ote? Alderdien eta botoen salda baino gozoagoa da gure *olarro zopa*. Oraingoa **sexualitatea** eta **bertsolaritza** uztartu ditugu. Portugal aldean hauteskunderik ez da izan, baina *aluga se* atalean izango da zer irakurria. Baita *izerdi patsetan* dauden bi orrialdeetan ere. Eskubaloia izango dugu hizpide **Alex Olidenekin**, Lehen Mailan denboraldi bikainak egiten ari den Pulpoko entrenatzailearekin. Uda datorrela eta, nolakoak izaten ziren antzinako uda sasoiak? **Zarrak berri** ikusita zerbait aldatu dela kon-

turatuko gara. Bainujantziak bai behintzat!! Orduan ez dakigu, baina orain jende asko joaten da hondartzara liburu hartuta. Irakurtzeko zaletasuna handia omen da. Pixkat asetzeko **ipuin labur bat** daukagu ze *letua* atalean. Aurreko zenbakian ekin genion, eta jarraitzeko asmoa daukagu. Gure nahia da hilero-hilero edonork idatzitako ipuin labur bat argitaratzea. Beraz, plazer baduzue idatzi, guk plazer handiagoz argitaratuko dugu eta. Hauxe da hitz gutxitan, **maiatzeko Baleike**. Datorren hilekoa eta egunkari berria elkarrekin irakurtzeko modua izango duzuela ez ahaztu. Badator!! Badator!!



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faksa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiaiko Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

BAUTISTA BARANDALLA-ren ALDEKO MANIFESTAZIOA ZUMAIAN

Nagore Garcia

APIRILAREN 27AN, San Telmo bezperako igandean, Zumaian, Barandallaren aldeko manifestazio bat egin zen, preso etxarriar honi 92. artikulua aplikatu diezaioten eskatzen. Manifestazio hanek, apirilaren 26-27an eskualde mailan, hau da, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Zestoa eta Errezilen eginiko baraualdi amaiera eman zien.

Baraualdi honen helburua Barandalla eta antzeko egoeran aurkitzen diren hainbat preso egoera salatzea zen. 24 orduko baraualdia izanik, Azkoitia, Azpeitia eta Errezilen 8na pertsona bildu ziren, kontuan izanik badirela hilabete batzuk Azpeitian txandakako baraualdiak egiten ari direla

astebukaerero. Zarautz eta Zestoan, aldiz, 30na pertsona bildu ziren. Baraualdi honi Zestoan eginiko prentsaurreko batekin eman zitzaion hasiera.

Zumaian eginiko manifestazioak 300 pertsona bildu zituen. Amaierako ekitaldia, txalapartarekin hasi zen eta ondoren Abelin Linazisorok presoek kartzeletan eta batez ere Barandallaren egoera salatzen zuen komunikatu bat irakurri zuen.

Barandalla oraindik ere kartzelan dago eta bere gaixotasuna gero eta larriagoa da. Beraz, guztion ardura da Barandalla etxera ekartzea.

Zer dago gure esku?

ASPALDIAN BURUAN dabilkit galdera hau: Zer dago gure esku? Egia esan usteak erdi ustel gertatu zaizkit azkenaldian inguruan gertatzen ari den guztia ikusita... Nik uste nuen gizon-emakumeok bat eginda zerbait aldarrikatzea nahikoa izango zela, zenbait erabaki ez hartzeko, baina zoritxarrez, ez da horrela.

"Prestige"n hondamendiari aurre egiteko neurriak eskatu, eta hala ere gure kostaldea zikin-zikin eginda; "Egunkaria" itxi, protesta egin eta ez dute ireki, eta gainera, oraindik ere 3 langile espetxean; "gerrarik ez" behin eta berriz aldarrikatu eta gerra dugu; torturarik ez erregutu eta torturatzen jarraitzen dute...

Zer dago gure esku? Ba, salatzea, protestatzea, aldarrikatzea,... baina zerbaitetarako balio al du horrek guztiak?

Zalantzasz beterik nago, baina ezingo dugu etsi...Nahi dutena edo buruhezurrean jartzen zaiena aurrera eramango

dute, baina ezingo dizkiegu, gainera, erraztasunak eman eta alfonbra gorria jarri, gainera, pasatzeko... traba egitea bakarrik al dago gure esku? Barkatuko didazue baina une honetan, bat-batean erantzun zehatza falta zait. Gutxienez hemen iritzia eman dezakegu eta ez da gutxi!

Zer gehiago egin dezakegu? Buruan dabilkit aukerak, baina benetan helburuak lortuko al ditugu? Inporta al zaie besteek zer pentsatzen duten? Eta hau zer gertatzen da politikan goi mailan bakarrik, edo gure herri, kuadrila edo etxean ere guk besteekiko horrela funtzionatzen dugu? Bakoitzak berak nahi duena egin behar baldin badu...anarkia; garai batean diktadura deitzen zioten, orain demokrazia eta horrelako deiturak ematen dizkiete. Zer dago gure esku?




Miriam Romatet

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517

AITA MARI
kafetegia

Julio Baobide, 15 Tel. 943 861395 ZUMAIAN



Ibon Aizpurua

Maiatzak 26

Astelehena, goizeko 6:15. Iratzargailuak tinpanoak lehertu behar dizkidala ematen du, ilunpean tramankulua nola ixildu asmatu ezinik nabil, halako batean eskuaz iratzargailua eta mesanotxean dauden gauza erdiak bota ditudala uste dut lurrera eta kauen!!! Oraindik hor ari da pi-pi-piiii!!! Argia piztu eta ixildu dut halako batean.

Begiko makarrak kendu ezinik komunera noa kanarioari ura aldatzera, badirudi eguna argitu duela, txoriak ere etengabean ari dira kantari. Betiko legez dutxa esnarri bat hartu beharko dut ea pixkat espabiltzen naizen horrela. Burutik hasi eta hanketaraino iristen dira ur jario freskoak, begiak ere zerbait gehiago irekitzen hasi dira, badago premia bai horixe!

Dutxan hartutako freskatua eta gero bi naranja eta limoi baten zumoa igandeko zuritoen gustoa kentzeko. Errealak ira-

bazi ala galdu bezperako zuritoez uzten duten ahoaldea ez baita lanerako aproposena, hobe genuen atzo ura edan izan bagenu (astelehenetako sermoi tipikoa, astea aurrera doan ahala aldatzen joaten den sermoia...). Zerbait solidoa jan beharko dut, katilukada zereal esnez beratuak.

Oinetakoak jantzi, ilea orraztu eta bazkaria poltsan dudala atarira noa. Egunon Moriko! Hiri ere bai Raku! Eta nola ez gure Pinttori! Ez dago gauza hoberik guztiei egun on bat opartzten hastea baino.

Iturrian ur freskoaz botela bete lanerako eta autoan sartu naiz, arrankatu eta irratia piztu dut...

Atzo hauteskundeak al ziren ba?



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Age artean



Eneko Dorronsoro

San Telmoen burukomin eta kalenturak igaro berritan, marinelen patroï zumaiartuaren ermitara egin dut bisita, aspaldiko partez. Eta han jarraitzen du. Ipar haizeari aurpegia emanaz, herriaren ikur, labarraren zaindari. Ai, zein poetikoa!

Baina berehala oroitu dut, burua barandilara hurbildu orduko. Bertigoa eragiten dit ile puntak ezerezero, hutsera agertze soilak. Oteizaren hutsa hau ote duk? Han behean hondar urruna, txingurri moduko gizakitxoak... Bi buelta t' erdi eman dizkit barrenak. Eta hirugarren buelta betetzera zijoanean, burukomin eta kalenturak itzuli zaizkit.

Hauteskundeak. Eta nere ondoezak, nere bertigoak, alperrik direla badakit, ez baitiagu, Karmelo, ezer argitzerik. Hauteskunde aurretik idatzia, hauteskunde ondoren irakurriko ditek. Beraz, gu gaituk hemen ezjakin bakarrak. Halere burua jokatu nikek (neberan diadan oilaskoarena noski), majina batek izango duela burukomin eta kalenturarik, Maiatzaren 25-a ondotik. Eta berriz ere herriaren gain hauetara itzulita, ermitak bertan jarraituko dik. Herriaren ikur, labarraren zaindari. Eta batez ere, postaletan saltzeko irudi paregabe. Ai, zein patetikoa!

Geu gehixen !!

Karmelo Arroiabe



Hauteskunde ondoren jaso diat hire idatzia, eta oraingoan ez duk e-mailaren abiadura etorri. Izan ere, nori bururutzen zaio, idatzia botila batean sartu eta labarretik itsarora jaurtitzea. Dena dela ez zekiat alderik badagoen, hauteskunde aurretik edo ondoren aritzean, bietan nolabaiteko auzo-lotsa sentitu baitiat.

Kanpainaren zehar, politiko denak hor jardun ditek burubelarri, hil ala biziko lehian, zeruak eta lurak geure botoaren truke eskainiaz, denok Disneylandia bezalako herri batean bizi nahi bagenu edo. Eta ondorena oraindik eta okerragoa izan dek: BAKOITZA BERA IRABAZLE. Norberak bere burua irabazletzat eta aurkariarena galtzailatzat aurkeztu dizkitek. Inongo lotsarik gabe, bla.bla.eta bla, aurrean gaudenok artaburu sorta baginan antzera.

Politikan bakarrik gertatzen dituk horrelakoak, matematika eta fisika legeak ez ditek hemen balio, magia eta ilusionismoaren teoremak dituk nagusiak. Dena dela pentsatzen hasita negok, ia gehienok dagoeneko jabetu gerala nola funtzionatzen duten politikoei hauteskunde garaietan. Eta horrela bada, nola arraio da posible jokaera eskema berdinak balio izatea? Agian, artaburu sorta gaituk eta merezi ditugun politikoei dauzkagu. ¿Zuk zer diozu, Itziar?

BOTAKA

Ixiar Eizagirre



Zumaiko frontoian zientoka pelota partidu jokatu ziren. Sekula ikusi al duzue 22na enpatean bukatu den partidurik? Ez, ez da posible. Pentsa zer fenomeno metafisiko den orduan partidu politikoa: "galtzaile" inor atera gabe "irabazleak" daude, eta gainera "irabazle" horiek denek ez dute enpatatzen! Ekuazio hori posible dela sinesten duenik ez dago (ejertzitotik kanpo, esan nahi dut). Politikoei diskurto bera saltzen digute, hala ere. "Korrokoitu" ote gara, beti zabor bera irensteko? Ez dut uste amu horri hiltzen diogunik.

Baina zein politiko da kapaz, gaur egunean, milaka begiren aurrean jarri eta "porrot egin dugu" esateko? Hori bide ertzeko klub batean "estriptisa" egitea bezalakoxea litzateke edozein korbatadunentzat: biluzik jarri eta berak ere ipurdian zuloa duela onartzea. Eta hori ez da, zoritxarez, politikako egungo estiloa. Ordezkariek ezin dio beste partiduari arrazoi eman publikoki, eta ezin du bere partidu

barnean eztabaidak daudenik aitortu. "Super eroiak" izan behar dute 18 urtez gorakoontzat: zalantzarik ez dutenak, sendoak, muturreraino koherentek. Eta "super eroi" bakoitzak, bere abenturatako etsaia bi pintzelada simpleekin marratzuko digu ("adardun hori da deabrua, eta ni aingerua"), umeentzat den eskema simple horretatik aurrera interpretatzen saia ez gaitzen, bazpada. Hori da gaurko politikaren estiloa.

Diskurso simple horiekin jendea euren aldera konbentzitzen dutela uste dute, nonbait. Agian ipnotizatuta gauzkate, baina akaso ez. Akaso gutako bakoitzaren pentsamendua askoz konplexuagoa da politikoei mitinetan erakusten dutena baino; akaso jendea nazkatu da pertsonaje publiko batek ere ez duelako sekula bere akatsik onartu; akaso jendeari ez zaio oraindik ahaztu Egunkariaren alde Donostiako manifestazioan ateratako argazkia, gertuago dagoena orain lau urteko hauteskundeetatik, egunotako panoramatik baino. Politiko abertzaleei galdera: lau urteotan "irabazi" egin dugu?

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAIKOR HORTZ KLINIKA

Pazoleta de los Faros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20752 ZUMAIKOR (Gauzoko)

Garretu
Rafael Iraundegi Elgoibar

Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea

Tel. 943 861523

Ez dakizula internet zer den?

FORONDAN DAGOEN KZgunean internet ezagutzeko eta erabiltzen ikasteko aukera paregabea dago.

Orain dela bizpahiru urte, Eusko Jaurlaritzak internet ahalik eta etxebizitzita gehienetan egoteko Konekta zaitzez izeneko kanpaina egin zuen. Ondoren jarri zituen abian KZguneak deitzen zaizkien guneak. Helburua bat eta bakarra: 16 urtetik gorakoek, baina batez ere langabeek eta etxean lan egiten dutenek internet ezagutu eta erabiltzen ikastea.

Aipatu bezala, Zumaian Foronda Kultur Etxean dago KZgunea. Ikastaroak antolatzen dituzte, hilero pare bat edo. Bi motako ikastaroak daude:

- oinarrizkoa: internet-en ibiltzeko oinarrizko ezagupenak ikasi daitezke. Baita e-postak bidaltzen eta txateatzen ere.
- aurreratua: internet-eko programak erabiltzen ikasteko ikastaroa da.

Ikastaroak edozeinentzat dira, eta gainera, dohainik. Beraz, aukera paregabea internet ezagutu eta erabiltzen ikasteko.

Batez beste 30 eta 50 urte bitarteko jendea izaten da ikastaroetan. Zaharragoak ere hurbiltzen dira, hala ere. 80 urtekoren batek internet erabiltzen ederki asko ikasi du. Sekula ordenadore baten aurrean izan ez direnak hasieran beldurtu egiten direla esan digu Olaiak, KZguneko arduradunak.



Gero, ordea, azkar asko ikasten omen dute.

Abenduan bi urte egingo ditu Forondako KZguneak. Orduan baino askoz jende gutxiago joaten da orain. Foronda leku egokia denean galdetuta, Olaiak ezetz esan digu, beste leku batean egonda, akaso jende gehiago joango zela ikastaroetara.

Aipatutako ikastaroetz gain, bada beste aukera bat: nahi denean bertara joan, eta internet erabili daiteke. Hau

ere dohainik. Edozein joan daitekeela esan digu Olaiak.

Ikastaroetan asko ikasten dutela ez da dudarik. Pentsa, web orriak ere egiten dituzte. Horietako bi sarean ikusteko aukera dago: Natur Taldearena, eta Beheko Plaza Elkartearena.

Bistan denez, aukera ederra etorkizunean ezinbestekoak izango diren tresnak ezagutu eta erabiltzen ikasteko. Oraindik ez duzula internet ezagutzen? Segi oraintxe bertan Forondara.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskainet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



27.000 euro euskarazko

DIRU BILKETA martxan jarri da akzioen bitartez; Zumaiaiko sektore eta herritar guztiei egiten zaie parte hartzeko deia

Hiru hilabete luze dira Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Bidegabekeriaren ondorioak larriak izan dira, baina euskal gizartea hasi da tunelaren amaiera ikusten: ekainaren bigarren hamabostaldian kioskoetan izango da euskarazko egunkari berria! Egunkariako langile ohiek gogor egin dute lan hilabete hauetan Egunero kalera tzeko, baina hasieratik garbi utzi zuten hura behin-behineko produktua baino ez zela; Euskal Herriak Euskaldunon Egunkariaren pareko euskarazko egunkari bat merezi zuela. Eta horretan ari dira.

Enpresa berria sortu dute. Itxieraren ondorioz kale gorrian gelditutako 151 langileek egunkari berria argitatu dute: Euskarazko Komunikazio Taldea S.A. Bakoitzak 400 euro jarri du guztira 60.350 euroko kapitala osatzeko. Enpresaren sorrera egunean bertan langileek agiri bat sinatu zuten esanez haiek erositako akzioak gerora sortuko den fundazio batera pasako direla. Langileen asmoa ez da enpresaren jabetza izatea. Langileek beharrezkoa zen lehen urratsa baino ez dute egin. Proiektu berria aurrera ateratzeko diru

baliabide handiagoak behar dira, eta kapital handitzea egitea erabaki zen, ondoko ezaugarriekin:


-Bost milioi euro arterainoko kapital

dira Zumaian. Guztien eskuragai jartzeko kanpaina zabala egingo da herriko sektore guztiei zuzendua. Gainera, Zumaiaiko Udalak utzitako turismo bulego zaharrea izango gara maiatzaren 27tik aurrera, astean hiru egunez: astearte, asteazken eta ostegunetan.

Ordutegia: 18:30-20:30. Bertan, informazioa eskatzeaz gain akzioak erosi ahal izango dira. Bertara hurbiltzerik ez duenarentzat bada telefono zenbaki bat: 625708747.

-Internet bidez: Eskera egin ahal izango da www.ektsa.net helbidean.

-Telefono bidez: 635733385 / 635733386 telefonoetan.



Nolakoa izango da produktu berria?

Ekainaren 14an Donostiako belodromoan egingo den festan aurkeztuko da egunkari berria, eta ziurrenik hurrengo asteburuan kaleratuko da lehen zenbakia. Ziurrenik ezinezkoa izango da langile guztientzako lanpostuak izatea, baina espero da %90ak lekua izatea. 13 urtez Euskaldunon Egunkaria argitaratu zuen lan taldeak jarriko du abian egunkari berria, eta horrek esan nahi du haren ildoari eutsiko diola, hein handi batean. 13 urteko ibilbidearen ostean lortutako maila hobetzea da erronka. Orain arteko planteamendua eta izaera izango dira ardatzak, baina berrituta eta, ahal den neurrian, hobetuta. Ekainean oinarritzko produktu batekin

handitzea onartu da. Kapitala gizarte osoan bildu nahi da, nahi duen orok parte hartzeko aukera izan dezan.

-Hori bideratzeko 50 eta 300 euroko akzioak jarri dira salgai.

-Inork ezingo du izan kapital osoaren %1,2 baino gehiago, inork ez dezan enpresa kontrolatzeko aukerarik.

Nola eskuratu akzioak? Akzioak erosteko bide bat baino gehiago dago:

Zumaiaiko Herri Batzordea: 300 euroko 82 akzio eta 50 euroko 48 saldu behar



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



Tel. 943 143379



egunkari berriaren alde

abiatuko da egunkaria: ohiko sailak gehi bizpahiru gehigarri. Udazkenean gehigarri berriekin osatuko da eskaintza.

Egunkari berria irakurgai jartzeaz gain, edizio jarraituari bidea egingo zaio. Horretaz gain gune tematiko eta monografikoak landuko dira, eta ingelesezko bertsioari eutsiko zaio.

Harpidetza kanpainaren emaitza. Zumaian 150 harpidedun egitea zen Herri Batzordearen erronka, eta oraingoz 115era iritsi gara. Egunkaria itxi aurretik zegoen kopurua bikoiztu egin da gutxi gorabehera, baina oraindik beste ahalegin bat egin behar dugu guztion artean helburua lortzeko. Egunkari berriarentzat oso garrantzitsua da harpidedun kopuru zabal batekin abiatzea, horrek oinarri sendo bat ematen diolako. Gogoratu harpidedun egiteko aukera beti dagoela, Egunerora deituta (943332550), Baleike bertara (943861545), edota Herri Batzordearekin harremanetan jarrita (625708747 edo 635733400). Badakigu lehen egunetan egindako eskaera batzuk galdu egin direla. Zure kasua bada, jarri zaitetz harremanetan Egunerorekin, harpidetza lehenbailehen osatzeko.

Ekainaren lean, ur festa. Egunkari berriaren aldeko ekimen asko egiten ari da Euskal Herri osoan, eta Zumaiaren



ere bada eskaintzarik. Santelmoetan giro ederra izan zen Egunkariaren aldeko egunean, eta orain, ekainaren lean (igandea), ur festa antolatu dute Arbustain Motor Elkarteak eta Egunkariaren aldeko Herri Batzordeak, arratsaldeko seietatik aurrera. Aita Mariko arraunlariak, Itxas Gaineko piraguiak, ur motozaleak eta beste hainbatek hartuko dute parte ikuskizun berezi horretan. Gainera, arratsaldea girotzeko Egunkariaren aldeko beste hainbat ekintza izango dira.



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Txepetxa 25 urtez hegan

ESTAZIOAN DAGOEN Txepetxa elkarteak 25 urte bete ditu.

Hori ospatzeko hainbat gauza antolatu zituzten. Gu mus txapelketan izan ginen eta argazki hauek bertan ateratakoak dira.

25 urte hauetan jende askok egin du lan Txepetxa elkartearen alde. Estazioko jaietan ipintzen zuten taberna-ekin oraindik ere gogoratzen gara.



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua


Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Musika eta jolasa bat eginda

Entzuleen artean umeak nagusi zirela, Musika Bandak Kontzertu Didaktiko bikaina eskaini zuen maiatzaren 18an

Askok pentsatuko duzue kontzertu didaktikoak orkestren kontua direla, eta Donostiako Kursalean eta Bilboko Euskaldunan izaten direla... ba oker zaudete!

Maiatzaren 18an eguerdiko 12etan Maria eta Jose Ikastetxeko aretora hurbildu ginenok majo gozatu genuen Udal Musika Bandak Inaxio Tolosaren laguntzarekin eskaini zuen kontzertu didaktikoan. Musika Banda bi helburu uztartzen saiatu zen kontzertu honetan, eta bai lortu ere! Batetik musikarekin jolasteko aukera eman



n a h i
zieten
entzulei;

eta bide batez, Musika Bandaren atek zabaldu, instrumentu familia bakoitza aurkeztuz eta entzulei instrumentu horiek bertatik bertara ezagutzeko aukera emanez.

Atentzioa eman zuen lehen-dabiziko gauza, ume kopuru handia. Udalarekin eta ikastetxeekin elkarlanean, Musika Bandakoak saiatu ziren herriko ume eta gazte guztiek kontzertu honen

berri izan zezaten, eta neurri batean behintzat, emaitza gustukoa izan zen.

Bateria, saxoak, tronpeta, klarineteak...

Inaxio Tolosa arduratu zen (musikariaren laguntzarekin) musika banda



baten atal bakoitza aurkezteaz: aurrena perkusioa (bateria, dunbalak, txindatak...), gero egurra (klarineteak, saxoak, flautak...) eta metala (fliskornoa, tronpeta, tronboia, tronpa, tuba...), eta azkenik zuzendaria.

Baina kontzertua ez zen izan instrumentu erakustaldi bat bakarrik. Instrumentu familia bakoitza hobeto ezagutzeko Musika Bandak obra batzuk jo zituen: "Pantera Arrosa", "Mission Imposible" etab. Gainera, entzule batek baino gehiagok eduki zuen aukera bateria jotzeko, klarineteari soinua ateratzeko... eta baita Musika Banda zuzentzeko ere!

Musika Bandakoak, pozik

Lehenengo aldia zuten Bandakoek horrelako kontzertu bat eskaintzen zutena, eta berrikuntza guztiekin bezalaxe, bazeukaten kezkarik. Hasteko, lasaitu ederra hartu zuten aretoan umeak nagusi zirela ikustean. "Udalarekin eta ikastetxeekin saiatu

gara kontzerturako dei bateratua egingen, eta hutsuneak hutsune, ume dezente etorri da", esan digute. Dena den, eta deialdia egiterakoan egon diren akatsak saiheste aldera, hurrengorako Udalarekin eta ikastetxeekin batera deialdia hobeto koordinatzeko beharra ere azpimarratu dute Musika Bandakoek.

Kontzertuaren "formatua" bera ere berria zuten, ez daudelako ohituta jolasetara bideratuta dagoen kontzertuak ematera. "Guretzat ere esperientzia berria izan da", aitortu digute, "baina oso esperientzia ona, guk ere ederki pasa dugu-eta!". Oro har, beraz, gustura Musika Bandakoak, "Musika Banda hobeto ezagutzeko aukera eman dugulako eta nahi duenarentzat gure atek zabaltzen jarraitzen dugulako". Nabari da ba pozik daudela, datorren ikasturterako beste Kontzertu Didaktiko bat prestatzeko asmo sendoa daukate eta!

IMANOL AZKUE
I D A Z L E A

"Niretzat literatura emozioak sortzea eta sorraraztea da"

"Gaur egun handia da" ipuinarekin irabazi du Imanol Azkuek XXI. Lizardi Saria.

Edozein aitzakia ona bada literaturaz hitz egiteko, literatura onaz hitz egiteko aitzakia paregabea hauxe.

ERABAT ZUMAIARRA da ipuin saritua. Letrak Imanolenak dira, eta marrazkiak Ander Hormazurirenak. Letrekin jolas egin duenarekin egin dugu jarduna.

"Gaur egun handia da" ipuinari buruz kontaiguzu zerbait.

Ipuinean egun handi bat kontatzen saiatu naiz, eta egun handia da familiak sari bat jasotzera joan behar due-lako. Aita idazlea da eta literatur sari bat irabazi zuen. Narratzailea 8 urteko semea da, bere ikuspegi berezitik dago kontatuta ipuina eta familiaren hainbat gora-behe-ra azaltzen ditu, batzuk egunerokoak, beste batzuk sari horren ingurukoak: zeinek osatzen duten familia, zer egiten duen aitak gainera-koek egiten ez dutena, nolako poza sentitzen duten... Ipuinak ez dauka aparteko misteriorik eta erraz irakurtzen da.

Nola sortu zen ideia?

Zorionez, behin baino gehiagotan tokatu izan zait sariak jaso beharra eta gehienetan familiarekin joan izan naiz. Horrelakoetan, askotan galdetu diot neure buruari zer pentsatuko duten nire seme-alabek, zer sentituko duten, nola



biziko duten... Halaber, beraien lekuan jarri eta neure buruari begiratu diot, ipuin-idazleari, eta saiatu naiz beraien begiekin ikusten zer egiten dudan beste guraso askok egiten ez dutena... Adibidez, ordenagailuaren aurrean etxean idatzi, orduak eta orduak; edo kalean, edozein lekutan, paper-muturretan presaka oharrak hartu... Hori da ipuinaren jatorria, hari nagusia, eta hortik abiatuta istorioak eta pasadizoak, familia baten ohikoak eta egunerokoak, lotu ditut elkarrekin.

Istorioak nondik sortzen zaizkizu?

Eguneroko bizitzatik, ingurutik, famuliatik, lagunetatik, telebistatik... Hori bai, niretzako inspirazio iturri onena egunerokotasunetik kanpo dauden gauzak egitea da: korrika noala, mendian nabilela asmatzen ditut istorio gehienak. Trenean noanean ere imaginazioa lanean jartzen zait. Egunero egiten ez ditudan gauzak eginda burua beste leku batean izaten dut, eta horrek asko laguntzen dit istorioak sortzen. Askotan nahikoa izaten da esaldi bat burura etortzea. Gero esaldi horren hariari tiraka hasi, eta istorioa bukatu arte.

Nola dakizu buruan daukazun istorioren bat ipuin bat idazteko ona izan daitekeela?

Idazten hasi eta gero, eta idatzi duzuna beste zerbaitekin lotu daitekeenean. Buruan izan eta idazten hasi naizen istorio bat ez dakit noiz apuntatutako beste harekin lotu, eta tiraka hasi. Horrela egiten dut nik.

Orduan, idazten hasi baino lehen ez duzu ipuinaren argumentua erabakita izaten.

Ez, ez. Batzuetan hasiera izaten dut prestatuta, besteetan bukaera edo hurrengo batean erdiko trama. Oso desberdina izaten da, baina garrantzitsua da ipuinari hasiera emango dion esaldia izatea.

Idazten zaudenean buelta asko ematen al dizkiozu idaztitakoari? Edo dena jarraian idazten duzu?

"Garrantzitsua da kanpoko norbaiten, ipuinaren berri ez dakien baten ikuspuntua ezagutzea"

Jarraian oso gutxitan. Gehienetan honela egiten dut: zer-bait idatzi, laga, berriz lehengora bueltatu, osatu... Normalean buelta dezente ematen dizkiot.

Zeri ematen diozu garrantzia, hizkuntza zuzen erabiltzeari edo literatur baliabideei?

Ipuinaren arabera da hori. Maitasun istorioa bada literatur baliabideak erabiliko ditut, metaforak eta antzekoak. Gazteei buruzko istorioa bada hizkuntzari begiratzen diot, gazte hizkera erabiltzen dut. Esaldien luzera ere aldatu egiten da ipuin batetik bestera.

Idazten jartzen zarenean zenbat idazten duzu?

Inspirazioaren arabera da. Egun batean bi orrialde idatziko ditut, hurrengoan esaldi bat, eta beste batean ezer ere ez. Beraien buruei egunero idazteko obligazioa ipintzen dioten lagunak badituzte. Bat edo beste, egunero goizeko bostetan jaiki eta idazten hasten da goizeko zortziak arte. Nik ez dut horrela egiten. Nire burua ez dut behartzen. Idazten dudanean idatzi eta kitto.

Eguneko zein momentutan idazten duzu?

Ez dut momentu jakinetan idazten. Izan daiteke larunbat goiz batean, aste eguneko arratsalde batean, iluntzean... Hori bai, garrantzitsua da bakarrik egotea. Kontzentrazioa derrigorrezkoa da.

Ipuin bat bukatutakoan norbaiti erakusten al diozu?

Denbora izanez gero, bai. Edo anaiari, edo emazteari erakusten diet. Eta zer-bait aldatuko luketela esanez gero, aldatu egiten dut. Idazten duena hain dago sartuta ipuinean, kanpoko ikuspegia ere galdu egiten duela. Horregatik garrantzitsua da kanpoko norbaiten, ipuinaren berri ez dakien baten ikuspuntua ezagutzea. Askok laguntzen du.

Zuk idatzitako ipuinetan zure alderdiren bat, zure nor-tasunaren ezaugarriren bat agertzen al da?



Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



Nire zerbait seguru agertuko dela, nahiz eta zer den jakin ez. Hori esateko, agian, ni neu ez naiz egokiena, baina zerbait izango da.

Hasieran sariak aipatu ditugu. Zenbat irabazi dituzu?
Dozena bat inguru.

Irabazi berri duzun Lizardi saria al da garrantzitsuen?

Bai. Beste maila bat da. Haur literaturako saria izatea berezia da. Gainera, aurreko urteetako irabazleen zerrendan idazle ospetsuak daude: Atxaga, Zubizarreta, Mariasun Landa, etab. Irabazlearen ipuina argitaratzea ere garrantzitsua da, eta Zarauzko Udalak 2.300 ale argitaratu ditu, eta Erein argitaletxeak ere argitaratuko du. Norberak idatzitakoa kalean eta salgai dagoela ikustea oso garrantzitsua da. Ospe handiko saria da, bai.

Zure izena idazle famatu horien alboan izatea zer da zuretzat?

Ez dakit zer ematen didan... Beti esan izan dut idazle horiei behetik gora begiratzen diedala. Horiek goian daude, eta ni behean.

"Zumaian jende askori gustatzen zaio literatura, zaletasuna badago"

Euskal idazle batzuk aipatu dituzunez, nola ikusten duzu euskal literatura?

Argitaratzen den liburu kopurua ikusita osasun ona daukala ematen du. Zenbat saltzen den ez dakit, baina argitaratu, behintzat, asko. Eta argitaratzen bada merkatuan eskaera dagoelako da. Hala ere, kontuan izan behar dugu hizkuntza eta kultura gutxitua dela gurea, eremu txikikoa.

Gure literatura Euskal Herriko mugetatik kanpora zabaltzeko itzulpengintza ezinbestekoa al da?

Nik ezin dizut horretaz ezer askorik esan. Galdera horri erantzuteko egokiagoak iruditzen zaizkit horretan dabil-tzan idazleak: Atxaga, Lertxundi, Saizarbitoria... Garbi dudana da euskal merkatua hain txikia izanik asko babestu behar dela. Euskal Herrian oso idazle gutxi bizi dira literaturatik, eta hori oso adierazgarria da. Gehiago babestu eta lagundu beharko litzateke euskal literatura. Eta kanpora zabaltzeko itzulpengintza bide egokia iruditzen zait.

Euskal literaturatik gatozen Zumaia. Literatur zaletasunik ba al da gure herrian?

Zaletasuna badago. Horren adierazgarri da literatur tailerretan biltzen garen literaturzale kopurua. Zumaia bezalako herri batean azkeneko literatur tailerlean, Pako Aristirekin egin genuen hartan hogeitaz lagun baino gehiago biltzea bada zerbait. Horrek esan nahi du Zumaian jende askori gustatzen zaiola literatura, zaletasuna badagoela.

Zergatik ez da hurrengo pausoa eman eta talde antzeko bat sortzen?

Literaturzaleok badugu horrelako zerbait egiteko gogo, baina nire ustez bilgune bat falta zaigu. Bilguneak izan litezke literatur tailerrak, poesia erreztaldiak, idazleen hitzaldiak, Baleiken ipuin laburrentzat daukazuen txokoa, etab. Horrelako lekuetan antzeko gustuak ditugun jendea bildu, eta gustuko dugun horretaz hitz egitea falta zaigula uste dut.

Bilgune izan litezkeen ekintza horietako asko egiten dira Zumaian, baina oso jende gutxi agertzen da. Adibidez, Unai Elorriagaren hitzaldira eta Jose Luis Otamendiren poesia erreztaldira oso jende gutxi joan zen.

Kontuan izan behar da literatura minoritarioa dela.

Irakurtzen duen jende asko dago, ordea.

Bai, baina horrelako ekintzetara joatea baino askoz erosoagoa da irakurtzea. Motibazioa behar da hitzaldi batera edo poesia erreztaldi batera joateko. Normala da jende gutxi agertzea.

Imanol Azkuek nola definituko luke literatura?

Definizio teorikorik ez dakit. Niretzat literatura emozioak sortzea eta sorraraztea da. Idazten duena idatzi duenarekin gustura izatea, eta irakurleengan halako emozioa sortu duela jakitea. Emozio hori mila eratakoa izan daiteke: poza, tristura, gorrotoa, ezinegona...

Idazten duzunean, hortaz, beti daukazu irakurlea gogoan.

Bai, bai. Gainera ni neu naiz lehenengo irakurlea.

Noiz konturatzen zara idatzitako hori ona dela?

Gerta daiteke idatzi eta berehala izatea. Adibidez, esaldi bat idatzi eta hari horri tiraka zerbait egin daitekeela konturatzea. Gerta daiteke baita ere, idatzi eta berehala asko gustatu, eta handik bi hilabetera ez gustatzea. Hori idazlearen aldartearen araberakoa da. Idatzi duzunean eta handik bi hilabetera amore bera ez baduzu, zaila da aurretik idatzitakoa gustatzea.

Zer irakurtzen duzu?

Batez ere eleberririk eta ipuinak; poesiak eta saiakerak oso gutxi. Eta euskaraz eta gazteleraz, bietan. Oporretan irakurtzen dut asko, baita trenean noanean ere. Trenean egiten den tarte hori oso ona da irakurtzeko. Harrapatzen dudana irakurtzen dut. Forondara joan, iritsi diren liburu berriak ikusi, apal guztiak goitik behera begiratu, eta horrelaxe aukeratzen ditut liburuak.

Zein izan da irakurri duzun azkeneko liburua?

Jon Alonsoren *Agur Darwin* saiakera, eta Xabier Etxaniz Rojoren *Koadro ixila*. Orain Yolanda Arrietaren *Jostorratza eta haria* irakurtzen ari naiz, eta Joxe Manuel Odriozolaren eta Jesus Rubioren saiakera bana.

Aldi berean liburu bakarra irakurtzen duzu edo bat baino gehiago?

Bat baino gehiago. Orain, adibidez, hiru dauzkat hasita.

Nor da zure idazle gustukoena?

Momentuaren araberakoa da hori, baina badira oso gustura irakurri ditudan liburuak: Joseba Sarrionandiaren

Narrazioak bost aldiz edo irakurrita daukat, eta beti nabil zein ona den esaten; Andu Lertxundiren *Otto Pette*; Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, *Bi anai*, eta Sugeak *Txoriari begiratzen dionean*; Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro*; Pako Aristiren *Kcapo*; Koldo Izagirre eta Harkaitz Cano ere asko gustatzen zaizkit. Nik uste dut momentuak daudela. Idazle baten liburu bat gustatuz gero, idazle horren beste liburu batzuk irakurtzen dituzu.

Zein liburu gomendatuko zenieke Baleikeko irakurleei?

Bat esatea zaila da, baina lehen aipatutako Sarriren *Narrazioak* bikaina da. Ipuin bakoitza, narrazio bakoitza obra bat da. Sarri beraren *Atabala eta euria*, *Marginalia* eta *Gu ez gara geure baitakoak* ere irakurtzekoak dira.

Idaztetik bizitzeko asmorik bai?

Nahi bai. Nik egingo nukeena da bizi eta tarteka idatzi. Akaso literaturatik biziko banintz ez nuke ezer idatziko. Hori gerta liteke. Obligazioa ez dakit ona den. Nik orain komeni zaidanean, etortzen zaidanean, eta nahi dudanean idazten dut.



IMANOL AZKUE
zumaiarrak 38 urte ditu aurten. Dozena bat sari irabazi ditu, baina orain ez omen dauka sariren batera aurkezteko asmorik. Aurkezten denean irabaztetik ez da urruti izango.

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 O 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Eolorazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA

Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Realak liga irabaziko al du?



IBAI URRUZUNO
Bai, ondona bea ai da jokatzeko



JOSU AGIRREZABALAGA
Bai, puntu bateko bentaja du ta ezta partidaik galduko.



ASER MARTIN
Nayo bai, bere esku do behintzat.



**NEREA LAZKANO eta
MARI KARMEN URBIETA**
Hoixe baietz, komeni da gainea.



FELIX LARRA AGA
Bai, bestiak baino aukera gedxo dazka.

CROISSANTERIA

Marina

pizzak
hanburesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1

Egunkaria aurrera
Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun
(lagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu 943 30 35 55
943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:
Martin Ugaldes Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDAIAIN

Euskarak behar zaitu **Egunero**

JATETXEA
LUBAKI

Baselri Auzotegia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

dekorazioa

ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 726188
943 143261

Arkupe

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

od AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 615 70 25 23

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko arrietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402
TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi
Gizonetzkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia
Taberna

Erribera Kalea 20150 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

ARozTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Julio Beobideri Nemesio Etxanizek

Bi gizon handi dakartzagu gaurko bertso sail honetara. Julio Beobide irudigile zumaiarrari buruz Nemesio Etxaniz poeta azkoitiarrak egindako bertsoak aukeratu ditugu. Bi azken bertsoak Zumaiak1970 ingu-



Zumaiako
Bertso Eskola

ruan Beobideri egindako omenaldirako eginak dira, ikastolako bi haurtxok orduan kantatuak. Zalantzarik gabe merezi dute lekutxo bat bertso historiko hauek gure Balei-ke aldizkari honetan. Zortziko handiko edozein doinutan kanta daitezke.

-1-
Jaunak emana dezu Julio
irudigile-sormena
ta zuk ordainez Jaunaren alde
jami zendun eder-sena
dena da sakon zure bidean
dena bikain, dena bena
Gurutzegintzan hala ere zuk
jaso dezu zure izena

-2-
Zure bihotza isuri dezu
Gurutzearen lanketan
Jaunari hartu zenion bere
amasa azken-oinazetan
saihetsa odol, bihotza-agiri
iltzeak esku-oinetan
ai zer nolako saria dizun
Jaunak prest zeru goietan

-1-
Txirindulari iaioa ikusi
zaitugu bidetan bama
aldapetako aukerakoa
zure hanka melar bana
haizea ere ebakitzeko
nolako sudur labana
haragiz uni, hezura pranko
hona Beobide jauna

.2.
Itsasertzean moila bidean
egina dezu etxea
hamaika ordu joan zaizkizu
landuaz eder-gosea
panparroikeri handirik gabe
buruturik lan betea
hargatik esker onez jo dizu
Zumaiak gorazanea



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

zidatzeko baimen guztiak



Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Udaberria Sexualitatea

Udaberriak odola bor-borka jartzen omen du eta itxura guztien arabera hala da. Udaberriarekin batera pertsona asko maitemindu egiten dira, beste askori, aldiz, alderantzizkoa gertatzen zaie. Leherketa kimiko, erromantiko bat gertatzen da eta sentimendu anitz azaleratzen dira. Maitemintzea zer den azaltzeko azalpen asko eman dituzte, bai psikologoek, bai poetek, bai filosofoek eta abarrek. Baina maiz hitz guztiak soberan daude maitasuna zer den azaltzeko.

Egia da sexu-gonadek -obarioak eta barrabilak- eta hormonek -estrogenoak eta testosteronak- odolari, bihotzari eta burmuinari eragiten dietela, eta horren ondorioz, maitemintzea gure kontroletik kanpo dagoen egoera dela ere esaten da. Hala ere, dena esan behar bada, egoera berri horretara ohitu ere egiten zara eta hasieran bezainbeste sugar egon ez arren, elkarrekin gustura egotea eta gozatzea da garrantzitsuena. Eta egia esan, lasaitasun une horiek ere oso gozoak eta politak dira.

Jada oso bestelako kontua da, ordea, jada bikoteko norbait bestearekin gustura ez dagoenean. Agian, hasieran bazirudien bien artekoa ondo zihoala, baina denborak erakutsi du ez dela horrela. Batzuetan, sugarra itzali egiten da. Eta horrelakoetan asko sufritzen da. Ezeri ez diozu zentzurik hartzen, eta ez daukazu ez etxetik irteteko gogorik, ez jan ezta lagunekin ibiltzekorik ere. Bikoteko bientzat oso gogorra da. Ez zaio errua inori egotzi behar. Denok desberdinak gara eta bi

persona elkarrekin ondo moldatzea ez da dirudien bezain erraza.

Harreman bati amaiera ematen zaionean, badirudi mundua gainera datorkizula,

baina zorionez ez da horrela. Pertsonok izugarrizko gaitasuna daukagu borrokatzeko eta aurrera egiteko, eta horretarako udaberria bezalako garairik ez dago. Mina pixkanaka-pixkanaka ahaztu egiten da eta eguzkiarekin eta loreekin batera irribarrea berreskura dezakezu. Gainera, munduan 6.000 miloi pertsona izanda hamaika aukera ditugu berriz maitemintzeko. Ez izan presarik. Politena maite duzunarekin ongi konpontzea eta elkarrekin gozatzea da. Gora bihotzak!

Ihintz Linazisoro.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatu + Aseguruak
Finan Administrazioa

bonin aguirre 4. behe
20.750 zuzkai (guzkoa)
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax. 943 862746

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670



Arkakusoak? NAU FAX MAL!

BOZKETA GARAIOTAN (gure kontura nork bazkatuko duen aukeratzen dugun bitartean !), gerra amaitu dela diote batzuek. Baina Lisboa xume eta fadista honetan, ni neu oraindik gerran nabil : arkakusoez ziria sartu didate. Eta ziria ez baldin bada, eztena bai behintzat. Bi aste daranatzen oraindik ikusi ez ditudan xamorro alu horiekin burrukan, eta leher eginda nago. Ez dakit benetan Irak irakiten jarri zuen guda nolakoa izan zen (besteak beste, neure larruan sufritu ez nuelako), baina honako honek ere parekorik ez daukala zin dagizuet.

Ez nintzen sekula arduratu arkakusoen bizimoduaz eta ugalketaz, goiz batean begiak ireki aurretik gerrialdean azkura arraro bat sentitu nuen arte. Neure burua kontsolatzeko erremedio polita izan zitekeen «bart arratsean norbait ibili da nere ohean eta ez naiz konturatu!» pentsatzea; baina ez, banekien azkure klase hark ez zeukala zerikusirik beste azkure klase horrekin. Hala ere noizean behin, ras-ras-ras arraskatuaz, ez nion utzi pozik bizitzeari. Baina hurrengo goizean bezperako bi horzkada haiek biderkatuta zeuden, ez lau, ez sei,... dozenatik gora tokitan egin zidaten krausk arkakuso txatxu horiek! Gerrialdetik hasi, tripa eta bizkar, hanka eta ipurtalde, dena gorri-gorri; ras-ras-ras hemen, eta ras-ras-ras han. Eta orduan bai, orduan pozik bizitzeari utzi nion.

Jendeari komentatzen nion, eta patxadaz hartzeko esaten zidaten; gehiegi ez ernegatzeko. Alegia, hemengo « nau fax mal » izpiritu bananeroa. Zerbait gaizki dabilenean, irakaslea etortzen ez denean (hiru aste alajaina !), autobusa inundiak ageri ez denean, zerbitzariak kasurik egiten ez dizunean, edo korreosen seilorik ez dagoenean... nau fax mal! «Ez dio axolarik » edo antzeko zerbait esan nahi duen orotarako esamoldeak edozertarako balio die. Beraien aldetik beraz, trankil. Baina nik erremedioa jarri beharra neukan arazoari. Logela goitik behera hustu, alderik alde garbitu, bereziki



erositako hauts magikoak sakabanatu, bi gau kanpoan pasa, fregatu, sikatu, eta lau egun pake-pakean egon ostean, goizian argi hastian, berriro ere azkurea. Ras-ras-ras hemen eta ras-ras-ras han !!

Azalduko nizueke hainbeste arkakuso egotearen kausa usoak direla justifikatzen duen teoria ezin hobea (ez da posible hainbeste uso, edo arratoi hegalaria egotea hiri batean !). Beraiek zabaltzen dituzte arkakusoak, seguru nago. Baina luzeegi joko lidakeenez, nere behin-behineko taktika zein den esango dizuet : pakearen usoaren izenean, arkakusoekin pakeak egin ditut. Arkakusoei pake unilaterala proposatu diet, pozik bizitzea itzultzeko asmoz ; eta konspirazio bidez horzkada egiten didaten bakoitzean, arnasa sakon hartu, eta... nau fax mal ! Zer egin bestela ? Pisukide ezezagun hauekin bizitzea gogorra da. Eta azkuretsua!

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzueterako departamendu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

CORO PRIETO

Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322




Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIÀ

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37





Alex Oliden: "Gure filosofia da gehienak herriko jokalariak izatea"

Lehen mailan ari den Pulpo Eskubaloi Taldeko entrenatzailea da Alex Oliden. Jokalari izateari utzi, eta entrenatzeari ekin zion. Eskubaloia barrutik-barrutik bizi du.

Aurten egindako lanarekin oso gustura dago, baina etorkizuna behin eta berriz aipatzen du. Ez dago ez lo hartzeko.

Aurtengo ligan hirugarren izan zarete. Espero al zenuten?

Ezta inondik ere. Gure asmoa zen liga bukatu baino lehen mailari eusteko helburua lortzea. Aurreneko biak kenduta, beste guztien artean berdintasun handia izan da, eta azkenean guk

muturra atera, eta hirugarren izatea lortu dugu.

Denboraldia zatika aztertzen hasita, nola ekin zenioten txapelketari?

Gaizki. Ni entrenatzaile nagoenetik sekula ez dugu lehenengo partida irabazi, ezta aurten ere. Berdindu egin genuen aurreneko partida. Gero, bigarrena irabazita, hurrengo hiruzpalau partidatan kontrario zailenak izan genituen aurrean, eta ez genuen ezer atera.

Gero, ordea, gorantz hasi zineten.

Bai, onenen kontrako partida horiek jokatuta, puntuak ateratzen hasi ginen.

Lehenengo itzuli polita egin genuen. Etxean oso indartsu aritu ginen, eta kanpoan tarteka irabazten genuen partidaren bat.

Bigarren itzulia ikaragarria, ezta?

Bai, bai, zoragarria.

Hirugarren postuak adierazten al du taldearen benetako maila?

Hori pentsatu nahi dugu. Baina aurten oso berdintasun handia izan da. Denboraldian zehar hirugarrenetik azkenera zegoen tartea hiruzpalau puntukoa izan da. Bukieran zortzi eta hamar puntuko alde izan da, baina




Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN EARDPA

ZALLA
Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

hori ez da tartea. Pixkat despistatuz gero beherago egoteko arriskua hor dago.

Taldean aurten bi jokalarri elgoibartar izan dituzue. Jende gutxi zenutelako?

Denboraldi hasieran Peru Zarautzek fitxatu zuen. Bestela ere asko ez ginen, eta bat kenduta taldean jendea falta zen. Pentsa, aurten gurekin gazte mailako bi jokalarri aritu dira. Jende eskasia ikusita, bi jokalarri horiek ekartzea erabaki genuen, eta asko lagundu digute. Gainera, taldean berehala sartu ziren, eta zumaiarrak direla esan daiteke. Hurrengo denboraldian ere gurekin izango dira.

Besteren bat ekartzeko asmorik bai?

Zuzendaritzako kideak hori aztertzen ari gara, eta momentuz nahigo dut ezer ez esan. Baina ekartzekotan bakarria ekarriko genuke. Gure filosofia da gehienak herriko jokalarriak izatea. Posturen baterako zumaiarrik ez balego, kanpotik ekarriko genuke.

Kanpokoak aipatu ondoren, etxekoei buruz hitz egin behar. Aurten aritu diren guztiek jarraituko al dute hurrengo denboraldian?

Pare bat jokalarri kenduta, beste guztiek segiko dute. Utziko dutenetako bat Borja Aginagalde izango da.

Klubaren asmoa taldeak Lehen maila honetan egonkortasuna lortzea al da?

Horixe nahiko genuke, baina badakigu zaila izango dela. Lana egingo dugu

horretarako, baina jakinaren gainean gaude denboraldiren batean maila galtzeko arriskua izan dezakegula.

Bestelakoan, Pulpo Eskubaloi Taldeko gainontzeko ekipoak zer moduz?

Neskek izugarritzko denboraldia egin dute. Kadeteak eta gazte mailakoak txapeldun izan dira, eta datorren denboraldian Euskal Ligan ariko dira. Gainera, neska seniorren taldea atera nahi dugu, eta badirudi aterako dugula, neska asko irrikitzen dagoelako eskubaloian jokatzeko. Bestalde, mutilen kadete eta gazte mailako taldeek, asko sufrututa izan bada ere, Euskal Ligan jarraitzea lortu dute. Oso gustura gaude.

"Etorkizunaren giltza
hauxe da: haurrak
erakarri eta
eskubaloian jokatzen
erakutsi"

Datorren denboraldirako gogotsu, hortaz?

Bai, bai. Gainera, mutilen seniorretako beste talde bat atera nahi dugu. Eskubaloian jokatu duten guztiei egingo diegu deialdia. Gure asmoa da, behe-behean hasiko litzatekeen talde hori 2. Nazional mailara igotzea. Talde

duina izatea da gure asmoa, serioa. Nahiz eta bigarren taldea izan, seriotasunez ariko den jendea nahi dugu.

Bukatzeo, eskubaloiak Zumaian ba al du etorkizunik?

Gure esku dago hori. Lan handia egin beharra dago. Gertatzen dena da haurrak eskubaloiara ekartzeko orduan, berandu ibiltzen garela. Eskolarteko kirolagatik, 12-13 urte egin arte, hurrek kirol asko egin behar izaten dute Foru Aldundiak hala agintzen duelako. Ni ados nago filosofia horrekin, baina horren ondorioz, berandu etortzen dira haurrak eskubaloiara. Gure arazoa haurrak ekartzea da. Etorkizunaren giltza hauxe da: haurrak erakarri eta eskubaloian jokatzen erakutsi. Eta nik, etortzeko esango nieke. Kirol polita izateaz gain, taldeko giro polita izaten dugu, eta eskubaloian jokatzen ikastearekin batera, oso ondo pasatzen dugu.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA




San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

IRAGANEKO UDAK GOGOAN



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Basadi Auzategia, 9-A 2-B



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073



Zumaia Oroituz liburutik hartutako argazkiak

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
Tel: 943 861433
Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

A Santelmoen ondorenean, euria

ma sartu da logelan, ate itxia kax--kax jota. Zutik nengoen, leihoaren ondoan, ibai aldera begira. Logela ilunpetan zegoen. Kaleko farolen argitasuna besterik ez.

--Zer, argirik ez al daukagu etxean?

Erantzungo nioke, gustura, argirik ez dagoela nire bihotzean, ilun eta triste nagoela, baina isildu egin naiz. Amak eskuan arropa dakar, tolestuta.

--Aiba, santelmotako arropak, plantxatuta. Jaso datorren urterako. Garbitu aurretik kendu egin dizkinat Egunkariaren aldeko pegatina, presoan aldeko pina...

Buruarekin baietz egin diot, lehenbailehen isiltze eta amaitze aldera. Ez dut hitzik esan. Ez daukat hitz egiteko gogorik. Mutu geratu naiz, azken egunetan bezala.


Alde egin duenean, aulkia hartu, armairu aldera arrastaka eramane eta gainera igota armairuko goiko atea zabaldu dut, eta arropa urdinak apalean jarri ditut, txukun--txukun, alkandora, galtzak eta lepoko zapia, aurten erabili ere egin ez dudana gonaren ondoan. Agur, datorren urtera arte. Santelmoak bukatu dira, bai, baina ez nik nahi bezala.

Atzera leihora itzuli naiz, eta Santio aldera begiratu dut. Euria ari du kanpoan, zirimiria, eta blai egiten ditu bazter guztiak: ibaia, etxeak, kaleak, espaloiak, baita bihotz minduak, erdibituak, ere. Euria ari du nire barrenean eta mela--mela eginda daukat gogoa.



Urrunean, kirol--portuaren gainean, kaio bat ikusi dut, bueltaka, hegan, noraezean. Kaioa iluntasunean, puntu zuri bat belztasunean.

Aulkian eseri naiz, mahaiaren aurrean. Flexoa piztu, boli-grafoa eta papera hartu eta idatzi egin dut: kalatxoria hegan gauaren ilunean. Gelditu egin naiz. Nire barrena heze, bustita sumatu dut, eta jarraitu egin dut, lerro--mailetan behera, segidan, erraz, ahalegin handirik gabe, tarteka eskailburuetan geldituta:



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91





ZE LETUA



Kalatxoria hegan,
gauaren ilunean.
Kalatxoria zugan,
kaiaren beltzean.
Biraka, inora ezean,
bueltaka, gauaren beltzean.
Kaia dago zugan,
kalatxoriaren ilunean.

Zer zabilta, kalatxori?
Zer zabilta, iheslari?
Txori ameslari,
amodio jostari,
gaua eta itsasoa zeharkatzeko ikaraz.


Zatoz niregana, maitea.
Lur hartu nire lehorrean.
Zatoz maitea, niregana.
Lur hartu nire bihotzean.

Telefonoak jo du egongelan, eta ama sumatu dut har-
tzen. Logelara dator, niregana. Atea jo du, kax--kax, eta zabal-
du egin du.

-Hiretzat dun, Aitziber. Jon dun.


Jon. Nire Jon. Ostartea.

Hitz gutxi behar dira adiskidetzeko, are gutxiago barkatu
behar duenak barkatu beste irrikarik ez baldin badu. Biharko
geratu gara, arratsalderako. Institutura etorriko zait bila. Pozik
sentitu naiz. Oskarbi.



Atertu du euriak, kanpoan eta barrene-
an. Uxatu dira nahigabeak. Logelara
sartu, mahaiaren aurrera joan eta eskuan
hartu dut paper hau. Orain arte idatzita-
ko guztia berriz ere irakurri dut eta irriba-
rrea irristatu zait ezpain ertzetik. Papera
eskuan hartuta, leiho aldera joan naiz. Kirol--portu aldera
begiratu dut, baina han ez zebilen kaiorik hegan.

Atzera mahaira itzuli eta eseri egin naiz. Paper hau ere
bota egingo dut zakarrontzira, inork ere ez irakurtzeko. Azke-
naldian zakarrontzia paperez beteta dago
eta hustu egin beharko dut.



Testua: Aitziber O.
Irudiak: Ander Hormazuri

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAJA • Tel. 943 861 191

EKO
URRATS

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 102 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAJA



Pianista

NAZIEN KRAKOWIAKO ghettoa haurtzaroan jasan zuen Polanskik eta beharrezkoa izan du urte asko iragan daitezkeen lagatzea garai hartan oinarrituriko istorio bat zinemara eramanez ahal izateko. Poloniar juduak Varsoviako ghettoon sartu dituzte. Szpilmann pianista ere bai. Agure ezindu bat leihotik behera botatzeko gai diren kartzelarien bortxa gupidagabea, familia osoak tiroz hiltzen dituzten zaindaria, sarraski-eremuetara eramana ez izateagatik ghettoan infernuan geratzeko elkarren arteko borrokak, familien desgiteak, bandalismoaren garaiko maitasunak, sentimenduak, zirrarak eta abar jasan, ikusi eta sumatuko ditu protagonistak. Piano-jole beldurtuak. Esan daiteke, hitz gutxitan, filma izua nagusitu zaion pertsona baten istorioa dela. Hain zuzen, piano-jolea izateak bizia salbatuko dio. Baina horrek ghettoon gertatzen denaren lekuko izatera eramango du. Izutua, ezkutatua, gero eta bakar-tuago, lau horma artean geratuko da eta azkenean ezin izango du inorekin hitz egin. Lau hormaz, kanpora begiratu ezin den leihoaz eta piano-jolearen aurpegiak baliatuz laburbilduko du zuzendariak filmaren benetako esanahia. Axolagabe uzten ez duena. Azpimarragarria Adrien Brody-ren antzezpena. Izugarria.

El pianista
(The pianist,
Erresuma Batua-
Frantzia-
Alemania, 2002).

Zuzendaria: Roman Polanski.
Gidoia: Ronald Harwood.
Fotografia: Pawel Edelman.
Musika: Wojciech Kilar
Aktoreak: Adrien Brody, Thomas Kretschmann, Frank Finlay
Sariak: Cannes 2002 Urrezko Palmondoa.
2003ko ekainaren 5ean, osteguna, gaueko 10,15ean



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



OT fenomenologia eta industria musikala

OTz (OPERACIÓN TRIUNFO) mintzatzea nola beraren jarraitzaile sutsu izatea gauza normalizat jotzen du egungo gizarteak. Badirudi telebistaren gai zerrenda gero eta gehiago nagusitzen doala jendearen eguneroko elkarrizketetan, beraren indarra ageri-agerian gelditzen ari delarik mementotan; OT honen guztiaren eredu garbi bat besterik ez da!

Telebista piztean, halako hipnosi egoera bat sortzen zaigu eta gure kuriositatearen zirrikiturik morbosoenak ernarazten dira, eta itsu-itsuan dena irensten dugu. Honen funtsa gizakiaren izate kuriosoan bilatu behar dela diote adituek, baina hemen sartzen da hain zuzen gero bakoitzaren erabakia: nola eman kuriositate horri jaten ematen? Batzuek OT dute eskaintzarik hoberena bezala. Zertarako jendea-ri esfortzu intelektual bat eskatzen duten gauzetan kuriositatea sortu? Ez, hori utopia bat da, barkatu!

Gogoetarik malenkoniatsuenean, berriz, argi dago zein den OT-ren funtzioa: gizarte lokartu bat izatea, hau da, kritikarako analisirik gabekoa. Horretarako zer? Operación Triunfo I, II, III eta mila. Hori horrela balitz gaizki legoke, baina harantzago ere joaten da OT, izan ere beste mezu arrakatsua bat ematen baitu, ondokoa: “Edozein izanik, esfortzurik gabe eta zorte pittin batekin famatu bihurtu eta arrakasta izan daiteke”. Eta horrek egia esan eguneroko bizitzan ez du funtzionatzen, guztiz kontra-koa baita erabili behar den errezeta. Nortzuek zioten telebista publikoak gizarte kulturaliki eta intelektualki hazteko erabiliko zirela?

Gizarte analisi bat egin dugu, baina musikaren ikuspuntutik begiratzuz ere ez genuke emaitza hobegorik lortuko! OT-ren lehen ataletik, momentu hartako artista eta kantari guztiek eklipse fenomenologia (hau ez zen naturala!) bat bizi izan zuten, eta diskoetxe askok, diruaren faltan, talde ezberdinei ez zieten aukerarik eman diskorik ateratzeko.

Beraien lanak promozionatzeko aukerarik ba al zen ba? Irrati formula guztietan OT-ren inbasioa ikaragarria zen. Horrela, denon zergekin eraturako produktu bat, musika estilo eta dibertsitatearen berrero bilakatu zen; biologia ebolutiboan adituak direnek “Markovian Process” batean kokatuko luketelarik garai hartako musikariek bizi izan zuten OT eferbeszentzia. Biologiarekin egin dugun analogia ez da kasualitate hutsa, teoria honek ongi errepresentatzen baitu



momentu hartan gertaturikoa; laburtuaz zera dio: “espezieak deuseztatzen diren ahala, espezie horietaz elikatzen diren izaki bizidunak hilik suertatzen dira, horrela generazioz generazio gero eta espezie gutxiago geldituko liratekeelarik, dibertsitatea murriztuaz; azken emaitza izaki bizidun ororen deuseztapena izango litzateke!”. Ez genuke esango musika sekula bukatuko denik, baina bai dibertsitate eta estilo ezberdinak, kontuan izanda edozein talderentzat beti daudela lehenagoko erreferentzia eta influentziak!

Hau horrela izanik, eta gorago esaten ari ginenarekin lotuaz, ez zen arraroa izan ordura arte artista kontsaktatu ziren askok OT-ra jo behar izatea beraien disko berriak aurkeztera (Alex Ubago...). Musikaren egoera kloniko honek, bazirudien ez zuela diferentziarik ametitzen.

Gaur ere egoera ez da itxaropentsuagoa, audientzi maila ikaragarriak lortzen dituen programa honek bere patrioekin aurrera joko duela ematen du, artista askoren zoritxarrerako.

Non dira betidaniko kantugileak (hitzaren zentzu osoan ulertu behar da!)? Fisiko normal bateko artista erraldoiak? Non dira kanta-idazleak? Non dira bateria-jole eta perkusionistak? Baxu-joleak? Gitarra-joleak? Piano-joleak? Celloak? Arpak? Fiddle-ak? Milaka tankera eta ñabarduradun ahotsak? Seguru asko herri txikiren bateko oholta baten gainean, oportunitate baten zain!

<p>L AUTO-ESKOLA PRACTICAS</p> <p>ZUMAI A</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua - Praktika eta azterketak Azpeitian - GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea <p>Basadi, 12 behea Tel. 943 861018</p>	<p>7 MARES 7 MARES GONDIK</p> <p>Arrain eta mariskoak Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak</p> <p>Zuloaga plaza, 1 Tel. 943862309</p>
---	---	--

OPORRAK BAKEAN 2003. HAUR SAHARARRAK GURE ARTEAN HAR EZAZU SAHARAKO HAUR BAT BI HILABETEZ ETXEAN

Urola Kosta Udal Elkarteak, Urola Kosta eskualdeko udaletako gizarte zerbitzuekin elkarlanean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumia), udan Saharako haurrak etxean hartzeko deialdia egin du. Udal Elkarteak eskualdeko familiei dei egiten die, uztailan eta abuztuan Saharako haurrei gure artean egoteko aukera eskaini diezaieten. Horren bidez, haur horiek bi hilabetez beren bizimodu gogorra utzi eta opor alaiak izango dituzte gure herriko haurrekin batera.

Egonaldia bi hilabetekoa da (uztaila eta abuztua). Egonaldi hauek hainbat helburu dituzte:

- helburu formatiboak: haur sahararrek liburuetan ikasitakoa ikustea, beren

egoeran ez baitute horretarako aukerarik

- osasun helburuak: desertuan jasaten duten egoerak eragindako hainbat eta hainbat gaixotasun sendatzea

- helburu soziala: sahararren arazoaren berri munduari ematea, haur horiek baitira sahararren enbajadorerik egokienak

Argibide gehiago nahi izanez gero edo Saharako haur bat uztailan eta abuztuan etxean hartzeko prest bazaude, jarri harremanetan zure udaleko gizarte zerbitzuarekin edo Urola Kostako Udal Elkartearekin (Maialen Illarramendi, 605 70 94 66).

Izen emateko azken eguna ekainaren 11 da.

Bost liburu zuentzat!!

Hauxe da Lizardi Saria irabazi duen ipuina. Bost liburu zozketatuko ditugu ekaineko zenbakian. E-posta bat bidaltzea nahiko duzue zozketan parte hartu nahi duzuela adierazteko. **AUKERA BIKAIN HAU EZ ALFERRIK GALDU!**

E-posta: baleike@topagunea.com



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

ekin ISTALLAZIO ELEKTRIKOAK
ELEKTRIZITATEA, S.L. TELEKOMUNIKAZIOAK

Erribera kalea 18 Behe TH/Fax: 943 143097
20.750 Zumaiak ekin@ekin.com
Instalatuzaile/banatuzaile ofiziala

CANAL+ via
CANAL DIGITAL

Telebista
batazbestea
DTH

Telebista
Movistar
Telebista
MovilLine

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPLETOS

HEZKUNTZA ESKAINTZA 2003-2004

• heziketa zikloak •

> ERDI MAILAKOAK

- Barazki-, Haragi- eta Arrain kontserbagintza, 1.400 ordu.
- Ekipo eta Instalazio Elektronikoak, 2.000 ordu.

> GOI MAILAKOAK

- Administrazio eta Finantzak, 2.000 ordu.
- Elikagaien Industriak, 2.000 ordu.
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak, 2.000 ordu

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: Maiatzak 5tik-9ra, biak barne.
SARBIDE PROBAREKIN.

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: Ekainaren 2tik 11ra, biak barne.
SARBIDE ZUZENA

Matrikula egiteko aldi arrunta: Ekainaren 30etik Uztailaren 4ra, biak barne.

Matrikula egiteko aparteko aldia: uztailaren 24tik 28ra, biak barne.

• batxilergoak •

> TEKNOLOGIKOA

> GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

> NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: Maiatzak 5tik-9ra, biak barne.

Matrikula egiteko aldi arrunta: Ekainaren 30etik Uztailaren 4ra, biak barne.

Aita - Mari Auzategia, z/g. • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) / Telak. 943 86 08 09 - 943 86 23 20 • Faxe: 943 86 08 10 / e-mail: zuminst@euskalnet.net

Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia

Tel./Faxe: **943 86 25 32**

TAILERRA: Santixo auzoa40